

ARAUAK IDAZTEN

Irakurri testua adi-adi eta esan nongo arauak diren.

- ✓ Sartu aurretik eskuak garbitu.
- ✓ Zaintzaileak esaten duen tokian eseri.
- ✓ Denetarik jan. Ez da guztia jan behar, baina derrigorrezkoa da probatzea.
- ✓ Txukun bazkaldu eta tresnak egoki erabili.
- ✓ Mahaitik altxatu nahi izanez gero, eskatu baimena zaintzaileei.
- ✓ Mahaiak garbi utzi. Bota zaborrak zakarrontzira eta utzi tresnak harraskan.
- ✓ Ez sartu sukaldean.
- ✓ Jolasgela zaintzaileak esaten duen tokian ibili.



Irakurri arauak eta sailkatu: I (Igerilekua) eta L (Liburutegia). Ondoren, idatzi.

- ☐ Sartzeko, kirol-txartala erakutsi behar da.
- ☐ Hitz egin behar baduzu, ahapeka egin.
- ☐ Liburuak zaindu eta mahaia garbi utzi.
- ☐ Igerilekuan ezin da kaleko arropak jantzita egon.
- ☐ Haur txikiak ezin dira uretan bakarrik sartu.
- ☐ Ordenagailua erabiltzeko, eskatu baimena.
- ☐ Nahitaezkoa da bainu-txanoa erabiltzea.
- ☐ Amañutakoen, liburuak beren apalean utzi.

